


Euskal AEko industria-prezioak % 0,1 igo dira 2024ko azaroan aurreko hilaren aldean

2023ko azaroarekin alderatuta, industriako prezioek % 0,3 egin dute behera

2024ko azaroan, Euskal AEko industria-prezioak % 0,1 igo ziren aurreko hilaren aldean, Eustatek landutako datuen arabera. Azaroko urte arteko tasa % 0,3 jaitsi da; tasa horrek azken hamabi hilabeteetan industria-prezioek izandako aldakuntza laburbiltzen du.

Azterketa zehatzago batek agerian uzten du, 2024ko azaroan, *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (% 1,8) eta *Altzariak, beste manufaktura-industriak, konponketa eta instalazioa* (% 1,7) sektoreek igo dituztela gehien prezioak, aurreko hilaren aldean. Aitzitik, hileko prezioetan jaitsierarik handiena izan duten sektoreak *Ura* (%-2,3) eta *Zurgintza, papera eta arte grafikoak* (%-0,7) izan dira

Euskal AEko industria-prezioen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

Ondasunen helburu ekonomikoaren araberrako sailkapenari jarraituz, 2024ko urriaren aldean, *Energiaren prezioak* % 1,5 igo dira eta *Kontsumo-ondasunenak* % 0,2, Kontsumo-ondasun iraunkorren prezioak % 1,5 igo direlako eta *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren prezioak* % 0,2 jaitsi direlako. *Bitarteko ondasunen prezioak* % 0,3 jaitsi dira eta *Ekipo-ondasunenak* % 0,2.

Urte artean, 2023ko azarotik 2024ko azarora, prezioen jaitsierarik handienak *Kokeriak eta petrolio* *fintzea* (% 12,1) eta *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (% 4,4) adarretan izan dira. Aitzitik, urte arteko datuei dagokienez, igoera handiena izan duten prezioak *Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta oinetakoen* sektorean (% 5,6) eta *Uraren* sektorean (% 6,9) izan dira.

Euskal AEko Industria prezioen indizea. Aldakuntza-tasak (p). Azaroa 2024

	INDIZEA	ALDEAREN %	
		m / m-1	m / m-12
Indize orokorra	111,4	0,1	-0,3
SEKTORE-BANAKETA			
Ateratze-industriak	128,7	-0,4	3,8
Manufaktura-industria	114,6	0,0	-0,1
Elikaduraren, edarien eta tabakoaren industria	122,9	-0,5	2,1
Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza	111,8	0,0	5,6
Zurgintza, papera eta arte grafikoak	123,0	-0,7	2,8
Kokeak eta petrolio finitzen	114,3	1,6	-12,1
Industria kimikoa	129,3	1,1	4,7
Botiken fabrikazioa	108,1	0,0	2,7
Kautxu eta plastikoa, beste produktu mineral ez-metalezkoak	117,9	0,1	0,4
Metalurgia eta produktu metalikoak	110,3	-0,2	-0,4
Informatikako, elektronikako eta optikako produktuen fabrikazioa	110,9	-0,3	2,6
Material eta ekipu elektrikoen fabrikazioa	113,1	-0,4	0,1
Beste inon sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioa	112,6	-0,2	1,0
Garraiorako materialen fabrikazioa	114,2	-0,5	4,6
Altzariak, beste manufaktura-ind., konponketa eta instalazioa	115,9	1,7	4,6
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	76,1	1,8	-4,4
Ura	125,7	-2,3	6,9
INDUSTRIA-SEKTORE HANDIEN ARABERA			
Kontsumo-ondasunak	119,1	0,2	3,0
Kontsumoondasun iraunkorrak	114,7	1,5	5,7
Kontsumoondasun ez-iraunkorrak	120,3	-0,2	2,3
Ekipo-ondasunak	113,4	-0,2	3,3
Bitarteko ondasunak	114,5	-0,3	0,3
Energia	97,7	1,5	-9,0

Oinarria 2021=100

(p)Behinbehineko datuak

m / m-1: Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

m/m12: Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hili beraren (m-12) aldean

Data 2024ko Abenduaren 20a

Iturria: Eustat. Industria Prezioen Indizea

Xede ekonomikoaren arabera ondaren talde handien prezioen urte arteko aldakuntza negatiboa izan da *Energian*, non % 9,0ko jaitsiera ikusten baita. *Bitarteko ondasunen* prezioak % 0,3 igo dira eta *Kontsumo-ondasunenak* % 3,0, *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrenak* % 2,3 igo direlako eta *Kontsumo-ondasun iraunkorrenak* % 5,7. Azkenik, *Ekipo-ondasunen* prezioek % 3,3ko urte arteko hazkundera izan dute.

INFORMAZIO-OHARRA

Industria-prezioen indizearen erreferentzia-urtea berritu egin da, eta 2021a izango da haren oinarri berria, Eurostaten irizpideei jarraituz. Oinarri-aldaketaren prozesuak metodologia sakonki eguneratzea ekarri du, eta, besteak beste, baliozkotzeko eta egozteko metodoak berrikusi dira eta aztertu beharreko biztanleria doitu da. Horrek guztiak indizearen serieak eguneratzea ekarri du.

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie lagundu duten establezimendu guztiei egindako ahaleginagatik. Horiei esker, hilabete honetako indizea laginaren % **75,55eko estaldurarekin** kalkulatu da.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62